

EHIZA-ARAUAK

2018-2019



Sakelakorako
ezarpena
Ehiza barrutiak



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

■ Ehiza-arauak, 2018-2019

80E Foru Agindua, 2018ko uztailaren 6koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak emana, 2018-2019 aldirako ehizarako debekuguneen xedapen orokorrak onartzen dituena. Foru Agindu horrek, oro har, ehiza-barrutietarako ehizaldiak finkatzen ditu zertan eraginik ez duela onartutako Ehiza Antolatzeko Planetan ageri diren beste jarduera batzuetan. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legearen ondoriozko ehiza-modalitate berriek onartutako Ehiza Antolatzeko Planean zehaztuak izan beharko dute, edo Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak berariaz baimendutakoak izan beharko dute.

■ Ehiza-espezieak eta izurri-espezieak

2018-2019 aldian Nafarroan ehizatzea baimentzen diren espezieak

Hegaztiak

- Antzara hankagorritzta (*Anser anser*)
- Basahatea (*Anas platyrhynchos*)
- Zertzeta arrunta (*Anas crecca*)
- Eper gorria (*Alectoris rufa*)
- Galeperra (*Coturnix coturnix*)
- Faisaia (*Phasianus colchicus*)
- Kopetazuri arrunta (*Fulica atra*)
- Hegabera (*Vanellus vanellus*)
- Oilagorra (*Scolopax rusticola*)
- Istingor arrunta (*Gallinago gallinago*)
- Pagauso (*Columba palumbus*)
- Txoloma (*Columba oenas*)

- Usapal arrunta (*Streptopelia turtur*)
- Birigarro arrunta (*Turdus philomelos*)
- Birigarro txiki (*Turdus iliacus*)
- Durdula (*Turdus pilaris*)
- Garraztarro (*Turdus viscivorus*)
- Mika (*Pica pica*)
- Bele txikia (*Corvus monedula*)
- Belea (*Corvus corone*)

Ugaztunak

- Erbia (*Lepus spp.*)
- Untxia (*Oryctolagus cuniculus*)
- Azeria (*Vulpes vulpes*)
- Basurdea (*Sus scrofa*)
- Oreina (*Cervus elaphus*)
- Adarزابala (*Dama dama*)
- Orkatza (*Capreolus capreolus*)

Izurri-espezieak

Ehiza-denboraldian ehizatu ahal izanen dira Foru Agindu horretan izurri-espezie gisa aipatutako espezieak, Foru Agindu horrek ezarritako mugen barnean.

Sator arrunta (*Talpa europaea*). Arratoi arrunta (*Rattus norvegicus*). Arratoi beltza (*Rattus rattus*). Etxe-sagua (*Mus musculus*). Satagina (*Apodemus sylvaticus*). Lursagu medite-rraneoia (*Microtus duodecimcostatus*). Landa-lursagua (*Microtus arvalis*). Ekialdeko ur-arratoia (*Arvicola terrestris*). Arratoi musketaduna (*Ondatra zibethicus*), koipua (*Myocastor coypus*). Etxe-txolarrea (*Passer domesticus*). Arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*). Arabazozo beltza (*Sturnus unicolor*). Haitz-usoen etxe-populazio basatuak (*Columba livia*). Usapal turkiarra (*Streptopelia decaocto*).

■ Orduetegia

Ehizan aritzeko orduetegia, oro har, eguzkia sortu baino ordu bat lehenago hasi eta sartu eta ordu batera bukatuko da. Egutegitik eguzki-irteerako orduak eta sartze-orduak hartuko dira.

■ Ehiza babestea

Ehizatzeke metodo edo bitarteko debekatuak, oro har

- 1.- Lakioak edo amuak eta mota guztietako tranpa eta zepoak, saihets edo zepo txikiak, sareak, zuloak, nasak eta eper-sareak barne.
- 2.- Arbolatxoa, hagaxkak, lika-adarrak, barraka edo paranyak eta likarekin erabiltzen diren tresna edo metodo guztiak.
- 3.- Babestutako espezieetako animalia biziak edo naturalizatuak erabiltzea apeu gisa, edo bestelako animaliak, hilik nahiz bizirik, itsuturik edo mutilaturik, eta mota guztietako apeu elektriko edo mekanikoak, grabazioak barne, salbu eta usategietako ehiza tradizionalen erabiltzen diren uso biziak.
- 4.- Animaliak elektrokutatzeko edo moteltzeko aparatuak.
- 5.- Faroak, ispiluak eta bestelako argi artifizial nahiz itsugarriak.
- 6.- Sare mota guztiak edo sareen bidez funtzionatzen duten tramankuluak, hala nola, sare eraisgarriak, laino-sareak edo sare bertikalak eta kanoi-sareak, baita sare japoniarrak eta txalupa italiarra ere.
- 7.- Jaki mota guztiak, keak, gasak edo arrastoa uzten duten substantziak, pozoiak, paralizatzeko substantziak, lasaigarriak, erakargarriak edo uxagarriak, baita lehergaiak ere.
- 8.- Kargadorean bi kartutxo edo gehiago eduki ditzaketen arma erdiautomatiko edo automatikoak, aire konprimatuko armak, eraztun-perkusioa duten 22 kalibreko errifleak, isilgailua edo gauzez tiro egiteko bisorea duten armak, eta substantzia moteltzaileak injektatzeko jaurtigaia jaurtitzen dituzten armak, baita baleztak ere.
- 9.- Huron.
- 10.- Mota guztietako aireontzietatik eta uretako ontzietatik edo lurreko ibilgailu motordunetatik tiro egitea.
- 11.- Balinak, postak edo lehertzen diren balak, eta jaurtigaia manipulaturik duten mota guztietako balak. Ondorio horietarako, kartutxoetan sartzen diren jaurtigaia postatzat hartuko dira 2,5 gramo edo gehiagoko pisua badute.
- 12.- Ahate-kanoiak.
- 13.- Hezeguneetan berunezko perdigoiak dituzten kartutxoak erabiltzea ehizarako, araudi aplikagarriaren arabera.
- 14.- Eperra apeua erabiliz ehizatzea.
- 15.- Debeku da inurri hegaldunak harrapatzea, edukitzea eta merkaturatzea, baita zebo edo jaki gisa erabiltzea ere.

■ Ehizarako debekuguneak

1993ko abuztuaren 1etik, ehiza-barrutietan soilik ehizatu ahal izanen da; hortaz, debeku da eremu libreetan ehiza egitea.

■ Ereindako ehiza

Ehiza Antolatzeko onetsitako Planetan ezarritako eremuetan soilik praktikatu ahal izanen da ereindako ehiza. Eremu horiek erabiltzeko epea 2018ko abuztuaren 15etik 2019ko otsailaren 25era arte izanen da, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Halaber, faisaien ereindako ehiza egin ahal izanen da Nafarroako ehiza-barrutietan jare uztea baimentzen duen uztailaren 6ko 11/2012 Foru Aginduak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak emanak, ezartzen dituen eremuetan, egunetan eta baldintzetan.

■ Txakurak hezteko eremua

Ehiza Antolatzeko Planetan baimendutako eremuetan hezi ahal izanen dira txakurak plan bakoitzean zehaztuko denaren arabera.

■ Baimendutako postuak usoa eta birigarroa ehizatzeke

- Hegan doazen hegazti migratzaileak ehizatzeke postuetan, ehiza elkarte frantsesekin konpartitzeakoetan, Frantzia dauden baldintza berberetan egin ahal izanen da ehiza udazkeneko migrazioan, baina bakar-bakarrik Nafarroan baimendutako espezieak.
- Tiro egiteko postuak, bai bakarrik bai ilaran daudenak, finkoak izanen dira eta mendilerroen tontorretan edo horien magalen goiko aldean egon beharko dute. Debekaturik dago eskopetekin batetik bestera ibiltzea eta armak zorrotatik kanpo izanda ehiza postuetatik kanpo ibiltzea, ehiztaria postutik hurbil erori den usoa jasotzera joaten den kasuetan izan ezik, halakoetan arma kargatua eraman ahal izanen baitu; birigarroaren kasuan, arma deskargatuta eraman beharko du.
- Debekaturik dago usoek hartutako bidea aldatzeko keinu, tiro edo beste edozein sistema erabiliz usoak izutzea eta uxatzea. Nolanahi ere, zilegi da legeari jarraituz ezarritako txaboletan, itsutu eta mutilatu gabeko apeuko uso biziak erabiliz usoak harrapatzea, betiere horrek usoari bere bidea utzarazten ez badio eta, horren ondorioz, legez paratutako beste postuetako ehiza galarazten ez badu.
- Usoa edo birigarroa ehizatzeke postu bat ondoz ondoko hiru urtetan ez erabiltzeak, baimenaz gabetzea ekarriko du berarekin.

- Uso-pasa garaian ehizarako baimena, eta birigarroa ehizatzeko baimena duen postu bakoitzean, gehienez ere, hiru ehiztari egon ahal dira aldi berean. Ehiztari bakoitzak eskopeta bakar bat eduki ahal izanen du postuan.
- Tiro-postuek, bai itxuraz bai erabilitako materialei dagokienez, paisaian ez nabarmentzeko modukoak izan behar dute. Ingurua garbitasun aldetik behar bezala edukitzea barrutia kudeatzeaz arduratzen denaren eta aprobetxamenduaren titularraren ardua da. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak, kasua bada, legezko neurriak hartuko ditu aipatu baldintzak betetzen ez dituzten postuen ehiza-jarduera eteteko.
- Uso migratzaileak edo birigarroak ehizatzeko baimendutako postu edo txabolak tokiz mugitzeko baimena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eman beharko du Ehiza Antolatzeko dagokion Planean.
- Postuak ehiza administratzeko ezarritako arauetara jarraikiz aprobetxatuko dira.
- Postu bakoitza beste postuen ohiko tiro-angelutik kanpo jarriko da. Postuen artean gutxienez 50 metroko tartea egonen da.
- Postuen artean interferentziarik bada, zaharrenak izanen du lehentasuna. Interferentzia dagoela esaten da lehentasuna duen postuaren eraginkortasuna gutxitzen denean, eta postuen titularraren artean batera ehizatzeko adostasunik ez dagoenean.

■ Ehizatutako aleak

Ehizatutako aleak etxera eraman aurretik lumatzen edo larrutzen badira, burua eta hankak kendu gabe utziko dira, identifikatu ahal izateko.

■ Ehiza larriko uxaldiak

Ehiza larriko uxaldiak behar bezala seinalatuko dira bideetan eta sarbideetan. Segurtasun-neurri gisa, ehiztariek eta uxatzaileek ikusgaitasun handiko txalekoak jantzi beharko dituzte. Altuera handiko nekazaritzako laboreetan egiten diren uxaldietan, postuak goratuak egonen dira, lurraren gorabeherak aprobetxatuta, edo beraiazko egituren gainean.

Baimendutako txakurrak: debeku da heltze-txakurren bidezko ehiza egitea. Debeku da uxaldietan zakur arraza horiek eta horien mestizoak erabiltzea: dogoa, bulldoga, pitbulla, rotweilerra, boxerra, dobermana eta Kanarietako heltze-txakurra. Uxaldietan, ohiko usna-txakurrekin batera, gehienez arraza horietako edo horien hibridoetako bi zakur erabili ahal izanen dira: ohalanoa, ardi-txakur alemaniarra eta artzakurra.

Ehiztari bakoitzak su-arma edo arku bakar bat eraman ahal izanen du. Uxaldietan, postuetan gutxienez lau ehiztarik egon beharko dute.

■ Orkatzak eta oreinak ehizatzeko zigiluak

Nahitaezkoa izanen da zigilu zenbakidunak erabiltzea, harrapatutako oreinei eta orkatzei paratzeko, Ehiza Antolatzeako dagokion Planean ezarritako kupoen arabera. Zigiluak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emanen ditu, ehiza-barrutia kudeatzeko arduradunak eskatuta.

Ehizaldi bakoitzean, harrapatu nahi diren animaliak adina zigilu eraman behar dira gutxienez.

Animalia bota ondoren, ezin izanen da handik mugitu harik eta zigilua paratu, eta harrapaketaren eguna markatu arte. Nolanahi ere, zigilurik gabe eraman ahal izanen da hurbilen dagoen mendiko pistaraino, bertan jartzeko; betiere, uxaldiko arduradunari alea harrapatu den unean abisua eman bazaio.

Belaunburuko tendoiaren eta hankaren artean paratuko da zigilua; ondoren, itxi eta, erauziz, zein egunetan ehizatu den markatuko da. Adarrak dituzten animalien kasuan, zigilua errosetaren gain-gainean paratuko da, baldin eta harrapatutako animalia aski handia bada, zigilu itxia adarretik ez ateratzeko adinakoa.

■ Ehizako kirol-txapelketak

Ehizako kirol-txapelketak egiteko, beharrezkoa izanen da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko Biodibertsitatearen Zerbitzuak alde zuzenetik aldeko txostena ematea. Ehizako kirol-txapelketetan zilegi izanen da ezarritako kupoak gainditzea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak alde zuzenetik onetsita. Ehizako kirol-txapelketak Nafarroako Ehiza Federazioak soilik antolatuta ahal izanen ditu.

■ Adi ehiztari!

Eraztundun txoriren bat aurkitzen baduzu, jakinarazi lehenbailehen eskualdeko Basozaintzari. *MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK.*

EHIZTARIAK BERAREKIN ERAMAN BEHARKO DITU

- Nortasun Agiri Nazionala -
- Indarrean dagoen ehiza-baimena -
- Arma-baimena eta jabetza-gida -
- Ehiztariaren nahitaezko aseguruua -
- Ehiza-barrutiak ehizatzeko baimena

Zure ehiza-baimena berritzeko, bertara etorri edo <https://administracionelectronica.navarra.es/CazaPesca> helbidean egin dezakezu. Informazio gehiago: www.caza.navarra.es

ESPEZIEA	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila
Basurdea	15						28
Adarzabala eta Oreina		Oreina zelatan 15	7	12		Adarzabala uxaldian Oreina uxaldian	28 27
Orkatza		2 Uxaldian					28
Azeria		2 Uxaldian			1 Saltoan		31 28 28
Eperra eta erbia		Eperra eta Erbi iberikoa: gehienez 2 egun Erbi europarra			1		27
Untxia					1		27
Oilagorra			12				31
Uretako hegaztiak	15	Basahatea 16		1			31
Usoa	15	Jauzira, galeperra Hegoaldea 16		1		31	Baimendutako postuetan eta txaboletan Saltoan
Birigarroa				Jauzira edo itxaronaldia	1		27
Galeperra	15	23					
Usapal arrunta	15	23					
Faisaia			EAPren arabera	30			31
Mika			Beste edozein espezie harrapatzeko ezarritako garaietan, eta baldintza beretan				

■ Basurdea

Baimena ematen da basurdea ehizatzen 2018ko abuztuaren 15etik 2019ko otsailaren 28era arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, nahiz estatuko, foru komunitateko eta tokiko jaiegunetan ere, suarmaz uxaldietan, lasterkako ehizaldietan eta gaueko itxaronaldietan, eta arku uxaldietan, lasterkako ehizaldietan, uxaka, zelatan eta gaueko itxaronaldietan.

2019ko apirilaren 1etik uztailaren 31ra egun guztietan ehizatu ahal izanen da basurdea su-armez itxaronaldi eta gaueko itxaronaldietan, eta arkuaz zelatan, itxaronaldian nahiz gaueko itxaronaldian. Arau honi dagozkion modalitateetan jarduteko 48 orduko aurrerapenez jakinarazi behar zaio Eskualdeko Basozaintzari.

Gaueko itxaronaldiak –ehiza su-armaz egin edo arku egin, berdin– Ehiza Antolatzeko Planean baimendutako postuetan egin beharko dira. Baimentzen da armari atxikitutako eskuargiak edo fokoak erabiltzea, tiro egin edo gezia askatu aurreko unean bakarrik.

Nekazaritzako laboreetan kalteak sortzeko arriskua dagoen ehiza-barrutietan uxaldian ehizatu ahal izanen da, Ehiza Antolatzeko Planean adierazitako uxalekueetatik kanpo.

■ Oreina

Baimena ematen da orein arrak zelata eginez ehizatzen, egunero, 2018ko irailaren 15etik urriaren 7ra arte, dagokion Ehiza Antolatzeko Planean xedaturikoaren arabera. Jarduera horretarako, ehiztariak 24 ordu lehenago jakinarazi beharko die eskualdeko basozaintzari, Guardia Zibileko Natura Babesteko Zerbitzuari eta Foruzaingoko Babes Ekologikorako Patruilari, ehizako gardaren izena eta bi abizenak adierazita.

Ehiza Antolatzeko kasuan kasuko Planean ezarritakoaren arabera, uxaldian ehizatzen baimena ematen da, 2018ko urriaren 12tik 2019ko urtarrilaren 27ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere. 2019ko martxoaren 16a baino lehen, erabilitako besokoen gordekinak eta erabili gabeak aurkeztu beharko dira eskualdeko Basozaintzan edo Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko Ehiza eta Arrantza Ataleko bulegoetan. Erabili ez diren besokoak eta erabilitako besokoen gordekinak itzultzen ez badira, hurrengo denboraldian ehiza larriko aprobetxamendua egiteko debekua jartzea ekar dezake.

■ Adarzabala

Baimena ematen da adarzabala ehizatzeko 2018ko urriaren 12tik 2019ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, nahiz estatuko, foru komunitateko eta tokiko jaiegunetan ere. Adarzabala ehiza larriko uxaldietan soilik harrapatu ahal izanen da.

■ Orkatza

Uxaldietan, 2018ko irailaren 2etik 2019ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere. Epe berean baimenduta dago zelatan eta uxaka ehizatzea asteko egun guztietan. Horretarako, 24 ordu lehenago jakinarazi beharko diete eskualdeko basozaintzari, Guardia Zibileko Natura Babesteko Zerbitzuari eta Foruzaingoko Babes Ekologikorako Patruilari, erabiliko den besokoaren zenbakia adieraziz. Kupoak dagokion Ehiza Antolatzeko Planean adierazitakoak izanen dira. Erabilitako besokoan gordekinak, eta eme eta kumeen besoko erabili gabeak 2019ko martxoaren 16aren aurretik aurkeztu beharko dira eskualdeko Basozaintzan edo Departamentuko bulegoetan. 2019ko apirilaren 1etik uztailaren 31ra arte, egunero ehizatu ahalko dira zelatan, Ehiza Antolatzeko Planeko kupokoak izanik, denboraldian bota ez ziren orkatz arrak. Horretarako, 24 ordu lehenago jakinaraziko zaio eskualdeko Basozaintzari, erabiliko den besokoaren zenbakia adieraziz. Ez dute abisua eman beharko ehiza egun horietan guarda baten laguntza izanen duten barrutiak, hark eginen baitu jardueraren koordinazioa, egunero eramanez zelatan ariko diren ehiztarien eta erabilitako besokoaren zenbakiaren kontrola.

Uxaka-ehizan erabilitako besokoan gordekinak, eta erabili ez direnak, 2019ko irailaren 1aren aurretik aurkeztu beharko dira Departamentuan. Erabili ez diren besokoak eta erabilitako besokoan gordekinak ez itzultzeak, hurrengo denboraldian ehizalarriko aprobetxamendua egiteko debekua jartzea ekar dezake.

■ Azeria

Saltoko modalitatea: galeperra harrapa daitekeen egun eta toki beretan ehizatu ahal izanen da, debekualdi erdian, eta 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere. Untxia epe orokorretik kanpo ehizatzeko baimena dagoen barrutietan, azeria ere harrapatu ahal izanen da, salto-ehizan, untxia harrapatzeko baimendutako egun eta toki beretan.

Uxaldiko eta taldeko modalitatea: modalitate horietan ehizatu ahal izanen da 2018ko irailaren 2tik 2019ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere. Espezie horri ehiza larriko uxaldietan soilik egin dakioke tiro balaz. Espresuki azeria harrapatzeko uxaldietan, perdigoiez egin beharko zaio tiro, eta uxatzaileek ikusgaitasun handiko txalekoak jantzi beharko dituzte.

Itxaronaldiko modalitatea: modalitate horietan ehizatu ahal izanen da azeri-zuloen inguruan 2018ko azaroaren 1etik 2019ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, eta estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan.

■ **Eperra eta erbia**

Bi hauen ehiza aldia 2018ko azaroaren 1etik hasten da, eta abenduaren 30era bitartean iristen da erbi iberikoaren kasuan, eta eperraren kasuan, berriz, 2019ko urtarrilaren 27ra arte zabalitzen da, igandeetan eta estatu osoko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan, barruti bakoitzerako ezarritako egutegi zehatzaren baitan, gehienez ere bi ehiza egun baimentzen direla espezie bakoitzerako. Eperra irekitzeko beharrezkoa da Ehiza Antolatzeko Planean ezartzen den ugaltze ahalmenaren %50aren gainetiko ugaltzaile kopurua izatea 2018ko udaberrian. Ehiza ordutegia, gehienez, eguerdiko 14:00ak artekoa izanen da.

Su-armez egindako ehizan, ehiztariko eta eguneko gehienezko kopurua bi eper eta erbi bat da, jauzira modalitatean. Erbiaren uxaldian, talde bakoitzeko bi erbi da gehienezko kopurua. Erbia nahiz eperra ehizatzeko taldeak ez dira inolaz ere hiru lagun baino gehiagokoak izanen.

Erbiaren ehiza erbi-zakurrekin, eskopetarik gabe, makilarik gabe, gehienez laguneko bi erbi-zakur solterekin, edo koadrilako bi erbi-zakur gehiagorekin, lotuta badoaz, eta bi arrasto-zakur laguntzaile gehienez, arestian ezarritako egunetan ez ezik, larunbatetan ere egin ahal izanen da, arestian apatutako aldi horren baitan. Gehienezko kupo pertsonako edo koadrilako bi erbi izanen da, koadrilan gehienez 6 lagun elkar daitezkeelarik.

Barrutien esleipendunek sistema bat ezarri beharko dute, zigilu edo txartelen bidez, ehiza egun bakoitzean harrapatutako ehizakiak kontrolatu ahal izateko, harrapatu diren unetik beretik.

Larre-ehizan jarduteko baimena ematen da, gehienez era laguneko luma edo arrasto lau zakurrekin, 2018ko urriko larunbat eta igandeetan.

Erbi europarra

Erbi europarraren ehiza baimentzen da, arrasto zakurrekin soilik, 2018ko azaroaren 1etik abenduaren 30era, igandeetan eta estatu osoko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan, barruti bakoitzerako ezarritako egutegi zehatzaren baitan. Uxaldi eran taldeko 6 lagun da gehienezko kopurua. Ehiza egunen kopurua ehizakiaren ugaritasunaren arabera izanen da, hala nola Ehiza Antolatzeko Planean ezarritakoaren arabera.

Ehiztariko edo taldeko eta eguneko erbi bat ehizatu ahal izanen da.

Barrutien esleipendunek sistema bat ezarri beharko dute, zigilu edo txartelen bidez, ehiza egun bakoitzean harrapatutako ehizakiak kontrolatu ahal izateko, harrapatu diren unetik beretik.

Larre-ehizan jarduteko baimena ematen da, arrasto zakurrekin, 2018ko urriko, azaroko eta abenduko ostegun, larunbat eta igandeetan.

■ Untxia

2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 27ra arte, ostegunetan eta igandeetan, eta estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere bai, barruti bakoitzean ezarritako egutegiari jarraiki. Ehiza barruti osoan Ehiza Antolatzeako Planetan ezarritako IKA (kilometroko ugaritasun indizea) baino 3 untxi heldu gehiago duten barrutietan, ehizatu ahal izanen dute 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 30era arte, larunbat eta igandeetan, baita estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere, modu antolatuan. Ehizaldi hauek egiteko, nahitaezkoa izanen da barrutiko guarda bertan egotea. Horretarako, aldez aurretik, laginketa bat, ehizako guarda batek sinatua, aurkeztu beharko da, hala nola ehiza egunak zehaztuta, eta guardaren kontratazioa udako ehizaldirako, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuan.

■ Oilagorra

2018ko urriaren 12tik 2019ko urtarrilaren 31ra arte, egunero, egunsentian hasi eta ilundu baino ordubete lehenagora arte, baso-guneetan eta ohiko txintzarria daramaten zakurrak baliatuta, uneoro zakurra lokalizatu ahal izateko eta mendiaren beste erabiltzaile batzuekiko ezbeharrak saihestu ahal izateko. Larre-ehizan jardutea baimentzen da, su-armarik gabe, oilagorra duten barrutietako basoguneetan, lau luma zakur gehienez eramanda, otsaileko egun guztietan.

Ehiztari bakoitzak gehienez hiru ale harrapatu ahal izanen ditu egunean. Ehiza-barrutietako esleipendunek zigilu- edo txartel-sistema bat ezarri beharko dute, ehiza-egun eta ehizadenboraldi bakoitzean harrapatutakoak kontrolatzeko. Debeku da oilagorra pasako itxaronaldietan eta urmaeletan ehizatzea. Hotz handiko egun berezietan Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak epe hori "fortuna-egun" izendatu ahal izanen du, eta, beraz, ehiza debekatu; halakoetan, hedabideetan emanen du horren berri. 2018-2019 denboraldian, debeku da oilagorra merkaturatzea.

■ Uretako hegaztiak

Baimena ematen da antzara hankagorritzta, zertzeta arrunta, basahatea, kopetazuri arrunta, hegabera eta istingor arrunta ehizatzeke 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, eta estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere bai. Basahatea 2018ko abuztuaren 15tik irailaren 16ra arte ere ehizatu ahal izanen da, ostegun, larunbat eta igandeetan, eta estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere bai. Hegoaldean, aipatu epean, Ehiza Antolatzeako Planek baimendutako eremuetan soilik ehizatu ahal izanen dira.

■ **Usoa**

Pagausoa eta txoloma: 2018ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte, baimendutako postu eta txaboletan, asteko egun guztietan. Halaber, pagausoa salto-ehizan harrapatu ahal izanen da galeperra harrapa daitekeen eremuan, eta postuetatik hegoaldeko barrutietan, 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 16ra arte. Jauzira modalitatea baimentzen da, 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 31ra arte ere, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere.

■ **Birigarroa**

Birigarro arrunta, garrazarroa, durdula eta birigarro txikia. Baimena ematen da jauzi-ehizan edo itxaronaldian harrapatzeko 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 27ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, eta estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan ere bai. 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 27ra arte, birigarroa ehizatu ahal izanen da asteko egun guztietan, ehizatzeke postu baimenduetan. Uso migratzaileen postu baimenduetatik ere ehizatu ahal izanen da 2018ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte, usoen baldintza beretan.

■ **Galeperra**

Nafarroaren iparraldean, 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 23ra arte ehizatu ahal izanen da ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, ehiza-barruti guztietan.

Hegoaldean, 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 23ra arte ehizatu ahal izanen da ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan Ehiza Antolatzeke Planetan ezarritako eremuen barnean.

Halaber, barruti bakoitzean eper gorriarentzat baimendutako egun berberetan ehizatu ahal izanen da galeperra. Bi eremuetan (ipar eta hegoalde) 10 aleko gehieneko kupo bat ezartzen da ehiztari bakoitzeko eta eguneko.

■ **Uspal arrunta**

Nafarroaren iparraldean, 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 23ra arte ehizatu ahal izanen da ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, ehiza-barruti guztietan.

Hegoaldean, 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 23ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, eta estatuko, foru komunitateko nahiz tokiko jaiegunetan, soilik galeperra harrapatzeko toki beretan eta uso-postuetan.

Bi eremuetan (ipar eta hegoalde) 2 aleko gehieneko kupo bat ezartzen da ehiztari bakoitzeko eta eguneko.

■ **Faisaia**

2018ko azaroaren 30etik 2019ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, eta Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan.

■ **Mika, bele txikia eta belea**

Baimena ematen da beste edozein espezie harrapatzeko ezarritako garaietan ehizatzeke, baldintza beretan.

Naturgunearen Zerbitzuko Eskualdeak eta Zaintzaren Mugapena

Tel. Ehiza : 848 426 733



Basozaintza

Mugapea	Teléfonoa	Posta elektronikoa
Bidasoa - Leitza	608 245 812	ogfobida1@cfnavarra.es
Ultzama - Arakil	679 996 810	ogfoular4@cfnavarra.es
Urbasa	608 417 635	ogfourba6@cfnavarra.es
Aezkoa - Kintoa	686 502 927	ogfoaequ2@cfnavarra.es
Erronkari - Zaraitzu	699 307 698	ogforosa3@cfnavarra.es
Agoitz	608 062 669	ogfoaoiz8@cfnavarra.es
Iruñea	608 062 649	ogfopamp7@cfnavarra.es
Lizarrako iparraldea	686 503 176	ogfoeste9@cfnavarra.es
Lizarrako hegoaldea	608 062 639	ogfoeste11@cfnavarra.es
Tafalla - Zangoza	609 907 084	ogfotafa10@cfnavarra.es
Tutera	609 904 957	ogfotude12@cfnavarra.es
Foruzaingoa - Ingurumena: pforalmambiente@navarra.es		
SEPRONA: na-cmd-pamplona-seprona@guardiacivil.org		